

1.1.2 GAIAREN LANKETA

> Zenbat urte dauzkazu?



- Zenbakiak

Euskaraz zenbakiak hogeinaka zenbatzen dira eta, horregatik, zenbakiak ikasten hasteko, lehenengo, hogeira arteko zenbakiak ikasiko dira eta, gero, hogeitik aurrerakoak.

Otik 20ra

Lehenik eta behin, umeei, argazki-albumeko irudiak erakutsiz, hogeia arteko zenbakiak aurkeztuko zaizkie eta hauek ikasteko hainbat ariketa egingo dituztela azalduko zaie. Horretaz gain, zenbakien zerrenda banatuko zaie ikas dezaten.

Hiru ekintza egingo dira umeei zenbakiak ikasten laguntzeko:

- Zenbakien abestia.
- Katean mandatua.
- Bingoa.

Hasieran, zenbaki zerrenda erabiltzen lagako zaie, baina, gero, zerrenda barik aritu beharko dira.

Hogeira arteko zenbakiak ikasitakoan, umeei esango zaie lehenengo hogeia zenbakiak ezagutzen dituztenez, beste guztiak ere jakin badakizkitela.

20tik 100era

Euskaraz zenbakiak hogeinaka zenbatzen dira; hau da, hogeitik hogeirako saltoak egiten dituzte:

Hasteko, umeei euskaraz zenbakiak nola eratzen diren azalduko zaie:

- 20, hogeia.
- 30, hogeita hamar (hogeia eta hamar).
- 40, berrogei (bi aldiz hogeia).
- 50, berrogeita hamar (bi aldiz hogeia eta hamar).
- 60, hirurogei (hiru aldiz hogeia).
- 70, hirurogeita hamar (hiru aldiz hogeia eta hamar).
- 80, laurogei (lau aldiz hogeia).
- 90, laurogeita hamar (lau aldiz hogeia eta hamar).

Argazki-albumeko irudiak erabiliko dira eta umeei zenbakien zerrenda banatuko zaie ikas dezaten.

1.1.2 GAIAREN LANKETA

> Zenbat urte dauzkazu?



- Zenbakiak

Gero, hainbat ekintza egingo dira zenbakiak ikasteko:

- Ariketak.
- Arbelean.
- Zenbakiak eta marrazkiak.
- Ardia.
- Bingoa.